

KAMA SUTRAREN GAKO EZKUTUAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

India, K.a. 240. eta 550. urteen artean. Vatsyayana idazle eta lekaideak *Kama Sutra* edo *Sexualitateari buruzko aforismoak* idatzi zuen. Lana ezagun egin duten sexu jarreraz gain, Kama Sutrak beste gai batzuk jorratzen ditu; esaterako, emaztea aukeratzeko irizpideak eta emaztearen betebeharrak eta pribilegioak.

Hala, liburuaren hirugarren atalean emazte perfektuak menperatu beharreko 64 arte zerrendatzen dira: janaria prestatzea, janzkera, masajeak, lurriak nahastea, xakea, konjuruak egitea, zurgintza, koadernaketa... Horien artean, zerrendako 45. tokian, *Mlecchita Vikalpa* edo idazketa eta komunikazio sekretuaren artea dago. Horrenbestez, Kama Sutrak jasotakoa kriptografiaren aipamen zaharrenetakoa da.

Jatorrizko bertsioan enkriptatzeko metodoaren xehetasunik ematen ez den arren, liburuari geroago erantsi zitzaizkion iruzkinetan, esaterako, Yasodharak gehitutako *Jayamangala* iruzkinean –X. eta XIII. mendeen artean– sistema zehatzak proposatzen dira. Horien arabera, testuak enkriptatzeko ordezkapen kode monoalfabetiko soilak erabili ohi zituzten. Alfabetoa bi zatitan banatu, letrak ausaz nahastu, bikoteak osatu eta letra bat besteaz ordezkatu besterik ez zen egin behar. Ordezkapenezko sistema



WELCOME TRUST IMAGES

Sexu jarrerak biltzeagatik da ezaguna Kama Sutra. Baina jarrera bildumaz gain, liburuak beste sei zati ditu eta, besteak beste, kriptografia du hizpide, emaztearen jarrera egokiari buruzko ataletan.

horri Kama Sutra kodea edo Vatsyayana kodea esaten zaio eta gaur egun erraz deszifra daiteke frekuentzien analisia eginda. Baina garai hartako teknologia eta alfabetatze maila aintzat hartuta, nahikoa zen amodio kontuen sekretutxoak gordetzeko. Eta beste helburu batzuetarako ere bai, Julio Zesarrek Galiako gerran ordezkapen hutsezko enkriptatze sistema erabili baitzuen.

Kama Sutrak proposatzen duen erabilerak gerrarako baino bakea-

ri eusteko asmoa du. Kriptografiak emakumeei beren harremanen xehetasunak gordetzeko balio behar die eta, hala, senarra hobeto zerbitzatu dute. Baina ez hori bakarrik. Sekretuak gordetzeko artea “beti da erabilgarria eta gogoz hartua”, baita emakumea senarrak gabe edo atzerrian bakarrik dagoenean ere. Kama Sutraren teknikak menperatzea jarrera akrobatikoak erabiltzea baino gehiago baita. ■



GLEN ELLYN

Erdi Aroan jarri zieten mamuei izara zuria

Hildakoen arimak askotariko itxura hartu du historian zehar, baina Erdi Aroaren amaieran, nagusiki XIII. mendetik aurrera, uste zuten hildakoek ehorztean zuten itxura izango zutela mamuek. Soinean zeramana ere atxikitzen omen zuen espirituak eta, horregatik, fantasmak hil-oihalak estalita irudikatzen hasi ziren.

Oihalaz gain, bakerik lortzen ez zuten espirituak kateak ere jarri zitzaizkien, lurreko bizitzarekin zuten lotura sinbolizatzeko. Defuntuak bete gabe utzitako zereginek ez zitoten hil ondorengo atsedena lortzen uzten, eta mundu honen eta bestearen artean harrapatuta, katez lotuta, geratzen zen. ■